

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Borja Corominas Fisas Talde Popularreko bozeramaileak, Udaltzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikulua oinarri, **ARAU PROPOSAMEN** hau aurkezten du **ondasun higiezinaren gaineko zerga ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA**ren inguruan, Udaltzaren azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Hobariak ez dira ematen zergaren zenbatekoa murrizteko, baizik eta Udalak kolektiboarentzat eta hiriarentzat positibotzat jotzen dituen jokabide indibidual jakin batzuk sustatzeko. Ez dugu ulertzen zergatik herritar batek hobari bat bakarrik eduki dezakeen. Neurri horren eraginez, askotan multzoari mesede egin diezaioketen banakako erabakietatik urruntzen dira herritarrak. Esate baterako, familia ugari batek bere etxeko energia-eraginkortasuna hobetzeko zerga-pizgarriak edukitzeari uzten dio.

Hori dela eta, **ARAU PROPOSAMEN** hau aurkezten dugu.

11. artikuluko 3. apartatua ezabatzea.

Donostia, 2023ko abuztuaren 21a

Borja Corominas Fisas,
Udal Talde Popularreko bozeramailea